

AITA JAUNAREN AURREAN

Doinua: "Iparragirre abila"

1

Hemen daukazu, Aita Jainkoa,
zahartxo bat zure aurrean,
gau isilean Zuri bihotzez
zerbait esan beharrean.
Hustu nahirik bihotza,
entzun nire otoitza,
biok gaude bakarrean.
Ondo dakit Zuk maite nauzuna
naizen ahul eta zaharrean.

3

Jaio-berritan bateatuta
semetzat hartu ninduzun,
oinez ibiltzen hasi baiño lehen
izan ninduzun ezagun.
Okerrera jausita
euki zaitut utzita...
Ene, zeinbat gau ta egun!
Azken batean eginak gara
gu biok elkarren lagun

5

Urteak urte, Zuri eskerrak,
iritxi naiz zahartzarora,
noiz esnatuko hor egon zara
atean hainbat denpora.
Lehen ginanok ezagun,
eginak gara lagun;
gaur bai nagola gustora!
Ustekabean Zeu sartu zara
laguntzat nire ondora.

7

Oraindik, Aita, ez dira amaitu
nire lan ta arazoak,
nork lagunduko zain hortxe daude
hainbat behartsu, gaixoak.
Berai lagundutzeko
neu nauzu bitarteko,
gertu ditut bi besoak.
Hal dan guztian poztu nahi ditut
etxe, herri ta auzoak.

2

Zuk ezagutu ninduzun, Aita
amatxoren sabelean,
eta mundura jaio-orduko
maitez hartu magalean.
Hau da hau maitasuna
agertu didazuna,
bihotz haundi zabalean!
Eskertzen zaitut orain ta beti
goraka ekinahalean.

4

Gazte nintzala, abila nintzan
zaharrago ta beharrago,
erdi bakarrik deika naukazu
ta Zeuk noiz entzungo nago.
Zeu zaitut, Jauna, lagun,
ondoan gau ta egun
gero eta hurbilago.
Jesus, Zu baino lagun hoberik
mundu guztian ez dago.

6

Zuretzat egin ninduzun, Jauna,
ta Zugan dut atsedena,
Zugan izan dut hasiera ta
Zugan izango azkena.
Zu zaitut Aita ona,
ondasun, zoriona.
Santu bedi zure Izena!
Arraiarentzat itxasoa ta,
Zu niretzat gozamina.

8

Esku zabalez eman didazu
bizitzan hainbeste urte,
Aita, Zugana joateko ordua
ez da izango aparte.
Jesusek diost hala,
zabalik ditudala
zure bihotz ta besarte.
Gora, Aitatxo! Laster nauzu hor,
agur Zeuk nahi duzun arte!